

# irakasBERRI

## Irakasle Berrien Harrera eta Orientazioa

### Norentzat

Ekimen hau Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean azken hiru urteetan lanean hasi diren irakasleei eskaintzen zaie.

### Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Gaur egun, UPV/EHUko irakasle baten ibilbide, beste bide batzuetatik datozen irakasleak badauden arren, ikerketaren bidez hasi ohi da (doktoregoa), eta ondoren kanpoko akreditazioa lortuz jarraitu, une horretan irakasle atxiki edo haren baliokide den beste figura batean kontratatua izatera helduz. Hala eta guztiz ere, irakasle berriek oinarrizko erreferentziak behar dituzte, UPV/EHUK nola funtzionatzen duen eta zer egitura duen jakiteko, eta unibertsitateari buruzko informazio orokorra ere behar dute.

Irakaskuntzako beste mailetan irakasle izateko trebakuntza ezinbestekoa den bezala, kasu honetan ez dago alde aurretik formakuntza pedagogikoa jaso dela ziurtatu beharrik, eta honek, hainbat kasutan, irakasle berriari nolabaiteko kezka sorrarazten dio bere egunerokoan.

Hori horrela, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) Irakasle Berriei harrera egin eta gutxieneko orientazio batzuk eman nahi dizkie.

Beraz, ekimen honek behar honi erantzun nahi dio, eta informazioa eman nahi die irakasle berriei, gai izan daitezen:

- Inguratzen dituen testuinguru instituzionalaz jabetzeko.
- Gogoeta egiteko aurretik egin duten ibilbideari eta gaitasun beharrezkoei buruz UPV/EHUko profesional akademiko onak izateko.
- SAE-HELAZek eta beste zerbitzu batzuek eskaintzen dizkieten baliabideak ezagutzeko eta baliatzeko

### Gaitasunak

- Irakasle berriaren irakaskuntza-lanaren testuinguru instituzionala ulertzea (unibertsitatea, ikastegia, saila, irakaskuntza taldeak, titulazioa).
- Prestakuntza-arloko behar pertsonalak aztertzea eta garatu beharreko gaitasunak zehaztea.

### Metodologia

Lehen bileran, argibideak emango dira irakasle berriari kokatzen laguntzeko eta bertarazten direnen beharrak jasoko dira.

Bigarren saioko metodologia, batik bat, azalpenezkoa izango da, eta programan bildutako gaiak garatuko ditu. Kasu batzuen azterketa praktikoa ere egingo da.

## Programa

Hasierako bilera informatiboan (ordubetekoa)

- SAE-HELAZen aurkezpena
- Irakaskuntzarako gaitasunen garapena
- UPV/EHUK eta SAE-HELAZek eskaintzen dizkizuten baliabideak

Bigarren saioan (3 ordukoa):

- Unibertsitatearen IKD ereduak eta IKD i<sup>3</sup> estrategia
- Zure irakaskuntzan kontutan hartu beharreko alderdiak
- Zure lanbidean maiz aurkitu ditzakezun egoera desberdinen aurrean nola jokatu Unibertsitateko arautegietan oinarrituz
- Unibertsitateak eskaintzen dituen oinarritzko zenbait baliabide
- Akreditazio prozesua

Formatzaileak:

Iker Ros Martínez de Lahidalga (SAE-HELAZEko koordinatzailea Arabako Campusean)

Elena Díaz Ereño (SAE-HELAZeko koordinatzailea Bizkaiko Campusean)

Mikel Garmendia Mujika (SAE-HELAZeko koordinatzailea Gipuzkoako Campusean)

Urtza Garay Ruiz (Berrikuntza Metodologikorako zuzendaria)

Mirari Ayerbe Díaz (SAE-HELAZeko zuzendaria)

## Datuak

### Iraupena

4 ordu: ordubeteko bilera informatiboa eta 3 orduko formakuntza saioa

### Data, ordutegiak eta lekuak

Hasierako bilera informatiboak (ordubeteko iraupena)

ARABA	
Data	Lekua
Irailak 26, 10:00	Elurreta Eraikina, 205 gela
Irailak 26, 15:30	Elurreta Eraikina, 102 gela

BIZKAIA	
Data	Lekua
Irailak 27, 11:00	P1G4A gela ( Luis Briñas, Kalea, metroko igogailuaren ondoan).1.solairua
Irailak 30, 13:00	Biblioteka eraikina, Batzar Aretoa
Irailak 30, 15:30	Biblioteka eraikina, Batzar Aretoa

<b>GIPUZKOA</b>	
Data	Lekua
Irailak 26, 10:00	Carlos Santamaria Zentroa, 2. gela
Irailak 26, 15:00	Carlos Santamaria Zentroa, 2. gela

Formakuntza saioak (3 orduko iraupena):

<b>ARABA</b>	
Data	Lekua
Urriak 7, 15:00-18:00	Elurreta Eraikina, 102 gela

<b>BIZKAIA</b>	
Data	Lekua
Urriak 9, 15:00-18:00	Biblioteca eraikina, Batzar Aretoa

<b>GIPUZKOA</b>	
Data	Lekua
Urriak 10, 15:00-18:00	Carlos Santamaria Zentroa, 2. gela

### **Hizkuntza**

Euskara

### **Campusak**

Bizkaia, Araba, Gipuzkoa

### **Izena emateko epea**

2019ko irailaren 12tik 21era (biak barne)

### **Izena emateko modua**

Izen-ematea hurrengo formularioaren bidez egingo da:  
<https://www.ehu.es/eu/web/sae-helaz/izen-ematearen-formularioa>  
 Plaza-kopurua mugagabea denez, nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.

### **Akreditazioa**

Bertaratze-ziurtagiria emango zaie parte-hartzaile guztiei (4 ordu), Unibertsitateko Irakasleen Irakaskuntza Prestakuntza helburu duten jardueren barnean dagoelako.

### **Informazio gehiago**

[sae-helaz@ehu.es](mailto:sae-helaz@ehu.es)

94 601 22 76